

## I. ERANSKINA

### (EB) 2020/852 ERREGELAMENDUAREN 17. ARTIKULUARI DAGOKIONEZ, INGURUMENEO SEI HELBURUEI «KALTE ESANGURATSURIK EZ ERAGITEKO» PRINTZIOPIOA BETETZEARI BURUZKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

<b>Jarduketaren identifikazioa</b>	«Berroreka eta ekitaterako lurralde-proiektu berriak. Ekintzailtza eta mikroenpresak», Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren esparruan, Euskal Autonomia Erkidegoan.
<b>Jarduerari dagokion STEPeko osagaia</b>	23. osagaia: lan-merkatu dinamiko, erresiliente eta inklusibo baterako politika publiko berriak .
<b>Jarduerari dagokion STEPeko osagaiaren neurria (erreforma edo inbertsioa). Hala badagokio, azpineurria adierazi behar da</b>	C23.I4: berroreka eta ekitaterako lurralde-proiektu berriak.
<b>STEPeko neurriari (erreforma edo inbertsioa) edo, hala badagokio, azpineurriari esleitutako etiketatze klimatikoa eta ingurumenekoa (VI. eranskina, 2021/241 Erregelamendua)</b>	047 etiketak - Ingurumenarekiko errespetuzkoak diren ekoizpen-prozesuetarako eta ETE-ek baliabideak efizientziaz erabiltzeko prozesuetarako laguntzak (% 40). Ehuneko berdea: % 25

<b>Izen-abizenak</b>	
<b>IFZ</b>	
<b>Bere izenean edo entitate honen ordezkari gisa</b>	
<b>IFZ</b>	
<b>Honako zeregin hau betez:</b>	
<b>Harremanetarako datuak (helbidea,telefonoa,e-maila)</b>	

### HONAKO HAU ADIERAZTEN DU:

Goian adierazitako jarduketa dela-eta, eskabidea aurkeztu duela proiektu honetarako:

eta proiektu horrek baldintza hauek betetzen dituela:

A. Ingurumenari dagokionez jasagarriak diren jarduera ekonomikoak sailkatzeko sistema (edo «taxonomia») baten bidez, inbertsio jasagarriak ahalbidetzeko esparru baten ezarpenari buruzko (EB) 2020/852 Erregelamenduaren 17. artikuluan ezarritakoarekin bat etorrira, proiektuan garatutako jarduerak ez diote kalte esanguratsurik eragiten ingurumeneko helburu hauei:

1. **Klima-aldaketa arintzea.** Jarduera batek kalte esanguratsua eragiten dio klima-aldaketa arintzeko helburuari, berotegi-efektuko gasen (BEG) isuri handiak eragiten baditu.
2. **Egokitzapena klima-aldaketara.** Jarduera batek kalte esanguratsua eragiten dio klima-aldaketara moldatzeko helburuari, oraingo baldintza klimatikoen eta etorkizunerako aurrez ikusitako onorio txarrak areagotzen baditu, bai jarduerari dagokionez, bai pertsoneri, naturari edo aktiboeri dagokienez.
3. **Baliabide hidrikoen eta itsas baliabideen erabilera jasagarria eta babes.** Jarduera batek kalte esanguratsua eragiten die baliabide hidrikoen eta itsas baliabideen erabilera eta babes jasagarriari, kaltea eragiten badie ur-masi –azaleko urak eta lur azpikoak– egoera onari edo potentzial ekologiko onari eta itsas uren egoera ekologiko onari.
4. **Ekonomia zirkularra, hondakinen prebentzioa eta birziklatzea barne.** Jarduera batek kalte esanguratsua eragiten dio ekonomia zirkularrari –hondakinen prebentzioa eta birziklatzea barne– kasu hauetan: eraginkortasunik eza ugari eragiten baditu materialen erabileran edo baliabide naturalen zuzeneko edo zeharkako erabileran; hondakinen sorrera, errausketa edo ezabaketa modu nabarmenean areagotzen baditu, edo hondakinen epe luzerako ezabaketak kalte esanguratsua eta epe luzerakoa eragiten badio ingurumenari.
5. **Atmosferaren, uraren edo lurzoruen kutsaduraren prebentzioa eta kontrola.** Jarduera batek kalte esanguratsua eragiten die kutsaduraren prebentzioari eta kontrolari, nabarmen areagotzen badiu atmosferara, uretara edo lurzorura isuritako kutsatzaileen kopurua.
6. **Biodibertsitatearen eta ekosistemen babes eta leheneratzea.** Jarduera batek kalte esanguratsua eragiten dio biodibertsitatearen eta ekosistemen babesari eta leheneratzeari, kalte egiten badie ekosistemen baldintza onei eta erresilientziari edo kalte egiten badio habitat eta espezieen kontserbazio-egoerari, bereziki Batasunak interesekotzat jotako kontserbazio-egoerari.

B. Garatutako jarduerak ez daude baztertuta planaren finantzaketatik, «kalte esanguratsurik ez eragiteko» printzipioari buruzko gida teknikoarekin bat etorrira, hauek direla bide: Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoari buruzko (2021/C 58/01)32 Erregelamendua, Espainiako suspertze eta erresilientzia planaren ebaluazioa onartzeari buruzko Kontseiluaren exekuzio-erabakiaren proposamena eta dagokion eranskina:

1. Petrolio gordinaren findegien eraikuntza, ikatza erabiltzen duten zentral termikoak eta petrolio edo gas naturala eraztea dakarten proiektuak, kalte egiten baitiote klima-aldaketa arintzeko helburuari.
2. Erregai fosilekin zerikusia duten jarduerak, erregai horien geroko erabilera barne, salbu eta, elektrizitatea eta/edo beroa sortzeko, gas naturala erabiltzen duten proiektuak eta garraio-azpiegiturarekin eta lotutako banaketarekin zerikusia dutenak, Europako Batzordearen Gida Teknikoaren III. eranskinean ezarritako baldintzak betetzen badituzte.
3. Emisio-eskubideen salerosketa-araubidearen (RCDE) esparruko jarduerak eta aktiboak, aurreikuspenen arabera, eragingo dituzten berotegi-efektuko gasen isuriak erreferentziako parametroen azpitik egongo ez badira. Diruz lagundutako jarduerak eragindako berotegi-efektuko gasen isuriak erreferentziako parametroak baino nabarmen txikiagoak izango ez direla aurreikusten bada, inguruabar horren azalpen arrazoitua eman beharko da.
4. RCDEren zeharkako kostuen konpentsazioa.
5. Hondakinen zabortegekin eta erraustegiekin lotutako jarduerak. Salbuespen hau ez zaie ezartzen birziklagarriak ez diren hondakin arriskutsuen tratamendua baino egiten ez duten instalazioetan eta aurretiaz dauden instalazioetan egiten diren ekintzei, haien helburua bada energia-efizientzia areagotzea, ihes-gasak harrapatzea biltegitatu edo erabiltzeko, edo errausketaren errautsetako materialak berreskuratzea, betiere ekintza horiek ez badute eragiten instalazioetan hondakinen tratamendu-ahalmena areagotzea edo haien balio-bizitza luzatzea. Inguruabar horiek dokumentu bidez justifikatu beharko dira, instalazio bakoitzeko.

6. Tratamendu mekaniko-biologikorako instalazioekin lotutako jarduerak. Salbuespen hau ez zaie ezartzen birziklagarriak aurretiaz dauden tratamendu mekaniko-biologikorako instalazioetan egiten diren ekintzei, haien helburua bada instalazioen energia-efizientzia areagotzea edo hondakin bereziak birziklatzeko eragiketetarako berregokitzea (adibidez, konpostatzeko eta bi hondakinen digestio anaerobiorako), betiere ekintza horiek ez badute eragiten instalazioetan hondakinen tratamendu-ahalmena areagotzea edo haien balio-bizitza luzatzea. Inguruabar horiek dokumentu bidez justifikatu beharko dira, instalazio bakoitzeko.
7. Jarduerak zeinetan hondakinen epe luzerako ezabaketak kaltea eragin baitiezaioke ingurumenari.
- C. Garatutako jarduerak ez daukate zuzeneko ondoriorik ingurumenean, ezta zeharkako ondorio primarioirik ere haien bizi-ziklo osoan zehar. Halakotzat jotzen dira amaitu ondoren, jarduera egin eta gero, agertu ahal direnak.
- Adierazpen honetan ezarritako betekizunetako bat betetzen ez bada, itzuli egin beharko dira jasotako kopuruak eta dagozkien berandutze-interesak.

.....(e)n, .....(e)ko .....aren ..... (e)(a)n.

SINADURA